

**Erdi Mailako
Lanbide
Heziketa**

**Irudi
pertsonala**

Ile-apainketako eta ilearen kosmetikako teknikaria



**Nafarroako
Gobernua**  **Gobierno
de Navarra**



**UNIÓN EUROPEA
EUROPAR BATASUNA**

**Fondo Social Europeo
Europako Gizarte Funtza**

**El FSE invierte en tu futuro
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du**

Ile-apainketako eta ilearen kosmetikako teknikaria

Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jarduera profesionalak garatzeko:

Ile-apainketa

- Ilean azterketa egitea, lan teknikoaren protokoloak diseinatzeko eta ile-zainketa estetikoak aplikatzeko.
- Ekipamenduak prestatzea eta ilea eta buruko larruazala garbitu eta egokitzea.
- Ilean kolorea aldatzea, guztiz edo partzialki.
- Ilean forma aldatzea aldi baterako, orraztea eta/edo biltzea.
- Ilean forma-aldaketa iraunkorrak egitea.
- Ilea moztea eta bizarra eta bibotea konpondu eta moztea.
- Irudi pertsonalerako produktuen eta zerbitzuen inguruan aholkatzea eta horiek saltzea.

Eskuen eta oinen estetika zainketak

- Eskuetako eta oinetako zerbitzu estetikoaren bezeroari arreta egitea, segurtasun, osasun eta higiene baldintzak betez.
- Azazkalak zaindu eta edertzeko teknikak aplikatzea
- Esku eta oinen tratamendu estetikoak egitea.

KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Zure lanbidean erabilera sozialeko ile-apainketa prozesuetan diharduten irudi pertsonaleko enpresetan arituko zara, honako zereginak betetzen: zerbitzuak ematea, merkaturatzea, hornikuntza, kalitatea, arriskuen aurkako babesa, eta efluente eta hondakinen kontrola. Profesional hauek besteren kontura aritu ohi dira, lantaldeak

osatuz kualifikazio berdina, txikiagoa edo handiagoa duten beste langileekin batera.

Hauek dira jarduera eta lanpostu aipagarrienak:

- Ile-apaintzailea.
- Bizargina.
- Ilea koloreztatze teknikaria.
- Ilean forma aldatze teknikaria.
- Ilea mozteko teknikaria.
- Ile-eranskingintzako teknikaria.
- Manikurako teknikaria.
- Pedikurako teknikaria.
- Sektoreko enpresetako merkataritzako teknikaria edo agentea.
- Ile-apainketa enpresetako harreragilea.
- Ile-apainketako tresneriaren, kosmetikoen eta tekniken erakuslea.

ZIKLOAREN MODULUAK

- Eskuetako eta oinetako estetika.
- Gorputz-irudia eta ohitura osasungarriak.
- Orrazkerak eta orrazkera bilduak I / II.
- Ilea koloreztatzea I / II.
- Ilea mozteko teknikak I / II.
- Ile-apainketarako kosmetika.
- Ilean forma aldaketa iraunkorrak.
- Ilean analisisa.
- Irudi pertsonaleko marketina eta salmenta.
- Gizonen ile-apainketa eta estilismoa.
- Lanerako prestakuntza eta orientabidea.
- Enpresa eta ekimen sortzailea.
- Lantokietako prestakuntza.